

KOSTUAK

Kostuak minimizatzea eta etekinak maximizatzea da gure helburuetako bat. Baina ez da helburu nagusia, izan ere, balioan oinarritutako negozio eredu bat da gurea, bezeroari eskaintzeko balioa sortzea da helburu. Horretarako, produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea gutxitu gabe.

Hasteko, kostu finkoak honako hauek izango dira: pabiloiaren alokairua, furgoneten mantenua (garbiketa...), hornidurak (argindarra, ura), aseguruak, webgunearen hostinga...

Kostu aldagarriak aldiz, honako hauek: langileen soldatak, aurreikuspenik gabeko materiala (gurpilak...).

Volkswagen enpresari kantitate handian erosten badizkiogu furgonetak, deskontua egingo digute seguruenik, eta beraz, horrela lortuko dugu gure eskala-ekonomikoa.

Gure ustez, negozio-eredu honek prezio egokiak izateaz gain, bere kalitate onarengatik ondo funtzionatuko du.

